



## **EBAZPENA (Espedientea: 08/2008 Mutua Madrileña)**

### **Osoko bilkura**

Javier Berasategi Torices jauna, presidentea

Joseba Andoni Bikandi Arana jauna, presidenteordea eta hizlaria

Juan Luis Crucelegui Garate jauna, mahaikidea

Jose Antonio Sangroniz Otaegi jauna, idazkaria

Gasteizen, 2009ko otsailaren 2an.

Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiaren osoko bilkurak, arestian esan diren kideekin eta Juan Luis Crucelegui Garate jauna hizlaria izanik, ondoko ebazpena eman du Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak eginiko 08/2008 espedientean. Hala egin da, Bizkaiko Kontzesionarioen Elkarteak Mutua Madrileña Automovilistaren kontra jarritako salaketaren ondorioz, hain zuzen *Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legean* debekaturiko jokabideak izateagatik.

### **GERTAERAK**

1. 2008ko maiatzaren 6an, Bizkaiko Kontzesionarioen Elkarteak (hemendik aurrera BKE) aurkezturiko idazki bat jaso zen Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuan (hemendik aurrera LDEZ), non Mutua Madrileña Automovilista (Mutua Madrileña) enpresak lehia murrizteko buruturiko ustezko jardunak agerrarazten baitira, hain zuzen ere prezioak ez negoziatzeagatik, eta Mutua Madrileñak BKEko kontzesionarioen tailer ofizialei tarifak inposatzeagatik. 2008ko maiatzaren 19an, LDEZk salaketa bat jartzeko aukera zegoela jakinarazi zion BKeri, eta horretarako, jakinarazpenarekin batera zihoan formularioa bete eta igorri behar zuten.
2. 2008ko ekainaren 3an, BKEk salaketa aurkeztu zuen, baina ez zuen hasierako idazkian bidalitakoa baino informazio gehiago eman.
3. 2008ko ekainaren 19an, LDEZk salaturiko jokabideari buruzko informazioa eta ohar laburra igorri zizkion Lehiaren Batzorde Nazionalaren Ikerketa Zuzendaritzari, Estatuak eta autonomia erkidegoek lehiaren defentsaren arloan dituzten eskumenen koordinazioari buruzko otsailaren 21eko 1/2002 Legearen 2.



- eta 5. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritz. Halaber, jakinarazi zenez, espedientearen zegoen informazioan ez zen ikusi jokabideak Euskal Autonomia Erkidegotik gorako eremu bati eragin izana. Hori dela-eta, 1/2002 Legearen 1. artikuluan xedatu denarekin bat etorritz, kasu hau ezagutzeko eskumena Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuari legokiokeela irizten zaio.
4. 2008ko uztailaren 2an, jakinarazpena igorri zuen Lehiaren Batzorde Nazionalaren Ikerketa Zuzendaritzak, eta bertan agerrarazi zenez, Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak eskumena zuela irizten zitzaion. Gainera, bertan jakinarazi zen estatuaren eskumeneko organoek beste espediente batzuetan (309/91 eta 360/95) berrikusi eta aztertuak zituztela salatutako gertaerak, non desagerturiko Lehiaren Defentsarako Auzitegiak Mutua Madrileñaren jarduketak lehia murrizten ez duela iritzi baitzion.
  5. 2008ko uztailaren 24an, zigor-prozedura ez egiteko proposamena igorri zion LDEZk Auzitegiari, baita Bizkaiko Kontzesionarioen Elkarteak jarritako salaketaren ondorioz eginiko jarduketak artxibatzeari buruzkoa ere, hain zuzen Mutua Madrileña Automovelistak lehia librearen erregelak urratu dituelakoan.
  6. Auzitegiak, 2009ko otsailaren 2ko bileran, auziari buruzko eztabaida egin eta ebazpena eman zuen.

## ZUZENBIDE OINARRIAK

**Lehena.-** Lehiaren Defentsaren Legeari buruzko Legearen 49. artikuluko 3. atalak xedatu duenez, Kontseiluak, Lehiaren Batzorde Nazionalaren Ikerketa Zuzendaritzak (gure kasuan, LDEA, LDEZk proposatua) proposatuta, zigor-espedientea ez egitea erabaki dezake Legearen 1, 2 eta 3. artikuluetan debekaturiko ustezko jokabideengatik eta, ondorioz, Ikerketa Zuzendaritzak buruturiko jarduketak artxibatzea (LDEZ) Lehiaren Defentsari buruzko Legea hautsi izanaren zantzurik ez dagoela irizten dionean.

**Bigarrena.-** Jarduketak artxibatzea proposatzen du Zerbitzuak, ondoko oinarri juridiko hauekin:

Aurkezturiko salaketaren arabera, Mutua Madrileñak ez du preziorik negoziatzen Bizkaiko Kontzesionarioen Elkarteko kontzesionarioekin; aitzitik, bere tarifak eta zerbitzua emateko denborak inposatzen ditu.

*“Gertaeren egiazkotasuna ezartzeko informazio erresebatu gisa jarduketarik egin beharrik izan gabe, hauxe ondorioztatzen da: gertaera horiek ez liratekeela egongo Lehiaren Defentsari buruzko Legearen uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 1, 2 eta 3. artikuluen debekuen artean, zeren:*



- a) *Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 1. artikulua aplikatzeko, hainbat operadore ekonomikoren edo elkarte bateko operadoreen arteko borondateak bateratu behar dira, baina kasu honetan ez da hala gertatzen, Mutua Madrileñaren kontrako salaketa baita. Beraz, alde bateko ekintza izango litzateke.*
- b) *Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 2. artikulua aplikatzeko, lehenik eta behin, azterturiko jokabidean inplikaturiko operadoreek (oraingoan Mutua Madrileña) aurrez ezarritako merkatu garrantzitsuan nagusitasun posizioa izan behar dute.*

*Kasu honetan, bidezkoa izan liteke merkatu garrantzitsutzat hartzea automobilak konpontzeko zerbitzuen merkatua Bizkaian.*

*Aseguruaren eta pentsio funtsen Zuzendaritza Nagusiak argitaraturiko aseguru-etxeen urteko 2006ko estatistika memoriaren datuen arabera, automobilen arloko 58 aseguru-etxe daude estatu mailan, eta horietatik Mutua Madrileñari dagokio egotzitako prima gordin guztien %8,27<sup>1</sup>. Ezinezkoa da banatzea horietatik zein zati den konponketa tailerren kostuei aurre egiteko.*

*Nolanahi ere, zentzuzkoa da ulertzea ezen, lehen aipaturiko merkatu kuota eta automobilen estaldurarako 50 erakunde kalifikatu baino gehiago direla-eta, automobilak konpontzea eskatzen duten aseguru-etxe ugari dagoela Bizkaian. Horregatik, Mutua Madrileñak nagusitasun posiziorik ez duenez, ez da bidezkoa aztertzea salaturiko jokabidea gehiegizkoa izan daitekeen edo ez.*

*Tailerrek askatasunez erabaki dezakete kontzentrazio hitzarmena sinatu nahi duten, Mutua Madrileñak eskaintzen dizkien baldintzekin. Gainera, nagusitasun posiziorik ez duenez, Mutua Madrileñak ez du zertan kontratatu hala nahi duen konponketako edozein tailerrekin, eta horiekin negoziatzea ezake enpresan ezarritako jarraibideen arabera<sup>2</sup>.*

- c) *Azkenik, Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 3. artikulua aplikatzeari dagokionez, artikulua horrek debekatu egiten ditu lehia librea faltsutu egiten dutela-eta herri-interesa kaltetzen duten lehia desleialeko egintzak. Lehia faltsutzeak ondorio nabarmena izan behar du ukituriko merkatuan herri-interesa kaltetzeko.*

*3. artikulua xedea da lehiari modu nabarmenean eragin diezaiokeen lehia desleialeko jokabideak zapaltzea, eta salaturiko jokabideak ezin izan dezake eragin hori”.*

---

<sup>1</sup> Mutua Madrileñak bere web orrian emandako datuen arabera, %41eko merkatu kuota zuen Madrilen 2007an

<sup>2</sup> <http://www.mutua-mad.es/salaprensa/documentacion> Betidanik Mutua Madrileñaren politikaren izan da bere mutualistek ordaindu beharreko primak ahalik eta gutxien igotzea. Berriki “izoztu” egin ditu orotarako autoen polizietarako tarifak.



**Hirugarrena.-** Auzitegi honek uste du LDEZk eginiko proposamenak egoki aztertzen dituela salaturiko gertaerak eta lehiaren defentsaren zuzenbidearen arloan dituen ondorio juridikoak.

Salaturiko jokabidea aztertzeko, komenigarria da aintzat hartzea Lehiaren Defentsarako Auzitegi ohiak 309/01 eta 360/95 espedienteetan garaturiko doktrina; hor agerian geratzen denez, Mutua Madrileña aseguru-etxeak, bere bezeroak atenditzen zituzten tailerrei prezio baxuak ezarri nahi izan zizkienean, ez zituen lehiaren arauak urratu.

Izan ere, Mutua Madrileña enpresaren jokabidea ez da lehia murrizteko modukoa, zeren helburua harremanak ezartzea baita tailer-sare batekin, eta tailer horiek onartu egingo dituzte kontratuan aurrez ezarritako zerbitzuak, hain zuzen baldintza ekonomiko eta konponketak egiteko denbora baldintza jakin batzuetan. Baldintzoi esker, prezio lehiakorrei eutsi ahal izango zaie bezeroei kobratzen dizkieten primetan eta polizetan. Lehiaren Defentsarako Auzitegiak ebazpenetako batean argudiatzen zuenez, “lehiaren arauekin bat datorren jokabidea da, kontsumitzaileen eskaria aintzat hartzeko merkatuaren lehiaren funtzionamendua bultzatzen du”. (LDAk 1992ko uztailaren 30ean emandako Ebazpena, 309/91 espedientea, 13. orrialdea).

Bestalde, enpresak automobilen aseguruaren merkatuan duen posizioa ez da nagusia EAEren lurraldean, espedientearen agertzen diren datuetatik ondoriozta daitekeenez. Hortaz, salaturiko aseguru-etxeak eskaturiko baldintzekin bat ez datozen enpresek aukera dute merkatuan lehian ari diren beste aseguru-etxe batzuek zuzendutako beste eskaintza batzuetara jotzeko.

Horrenbestez, salaturiko enpresaren jardunak argi eta garbi lehiaren aldeko ondorioak dituela irizten dio Auzitegi honek, baita merkatuan eraginkortasuna eragiten duela ere, automobilen aseguru-polizen prezioei eustea ahalbidetzen baitu, eta horrek zuzenean dakarkio mesedea kontsumitzaileari, herritarren poltsikoetan eragin handia duen eta gizartean oso zabaldua dagoen zerbitzu baten kontratazioan.



Hori guztia dela-eta, ondokoa eman du Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak:

### **EBAZPENA**

**BAKARRA:** Ez da egingo zigor-prozedurarik eta artxibatu egingo dira Bizkaiko Kontzesionarioen Elkarreak aurkezturiko salaketaren ondorioz jarraituriko jarduketak, ez baitago Lehiaren Defentsari buruzko Legea hautsi izanaren gaineko zantzurik.

Ebazpen hau jakinaraziko zaie Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuari eta eskatzaileei, eta ondokoaz ohartaraziko dira: ebazpenak administrazio-bidea agortzen duela eta horren kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezaketela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Salan bi hilabeteko epean, ebazpena jakinaraziko den egunetik zenbatzen hasita.